

2005

MARTXOA

MARZO



Gezala

AUDITORIUM

Linema 800

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves




TE DOY MIS OJOS

2004ko Goya sarietan erabateko irabazlea izan 7 sari eskuratu ondoren. Donostiako zinemaldian, berriz, zilarrezko maskorra lortu zuen. Lantzen duen gaia gaurkotasun ikaragarrikoa (zentzu bikoitzean): genero indarkeria. Eta gaia tratatzeko ikuspuntuak eztabaida bat baino gehiago sortutakoa. Bikote baten arteko amodio/gorrito/beldur istorioa da. Zuzendariak indarkeriaren aurkako ikuspuntua hartzen badu ere, erasotzailea ulertzeko saiakerak egiten ditu. Oreka zaila eta latza, baina kritikaren ustez lortzen duena.

2003, Espainia 109 min. Bollain, Iciar.

Laia, Marull, Luis Tosar, Candela Peña, Rosa María Sardá, Kiti Manver.




LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS

Estatu Batuetatik datorren pelikula honetan ez duzue emakume finik ikusiko, ezta modelo gorputzik duenik ere. Izenburuak dioen moduan, kurbadun emakumeak, errealtatean aurki ditzakegun pertsona normalak osatzen dute pelikula-ren antzezle taldea. Bertan itxura fisikoaren gaiaz gain, beste batzuk landuko dira: emakumeen funtzioa familian, hezkuntzarako duten eskubidea, lan baldintzen ezegonkortasuna... guztia Estatu Batuetako Los Angeles hirian kokatua. America Ferrera 18 urteko antzezle protagonista benetako sorpresa izan

2002, EEBB 90 min. Cardoso, Paricia.

Lupe Ontiveros, America Ferrara, Ingrid Oliu, Brian Sites.



LAS VIRGENES SUICIDAS

Bere osaba Francisen *El Padrino III* pelikulan antzezle moduan aritu ondoren jaso zituen kritika gogorren bidez genuen Sofia Coppolaren berri. Bederatzi urte beranduago, *Las virgenes suicidas* estreinatu behar zuela jakin zenean asko ziren egur berdina jasoko zuela pentsatu zutenak. Ez zen horrela izan, pelikulak arrakasta izan zuen eta ikusleek oso ongi hartu zuten. Gerora antzezle lanak baino zuzendari lanak hobeto dominatzen dituela ikusteko aukera izan genuen *Lost In Translation* egin zuenean. Istorioa zertaz den? Izenburua berrirori irakurri!

1999, EEBB 97 min. Coppola, Sofia.

James Woods, Kathleen Turner, Kirsten Dunst, Scott Glenn.




LA BODA DEL MONZÓN

Indiako Delhin monzoien garaia da eta aldeaz aurretik konpondutako ezkontza baten antolaketa lanetan murgilduak dabilta bi familia. Ezkongaiak ez dute elkar ezagutzen. Elkarrekin lotuak dauden bost istorio kontatzen dira filmean eta amodioaz, moralaz eta gizarteaz hitz egiten du pelikulak. Salaam Bombay! ezagunaren egilea den Mira Nairrek 2001eko Veneziako zinemaldian pelikula hoberenaren saria irabazi zuen filme honekin.

2001, India, Frantzia 114 min. Nair, Mira.

Naseeruddin Shah, Lillete Dubey, Shefali Shetty, Vijay Raaz.




MI VIDA SIN MÍ

Ann-ek 23 urte ditu. Bere bi alaba eta senarrarekin karabana batean bizi da. Behin ere joan ezingo duen unibertsitatean garbitzaile lanetan aritzen da gaeuz. Bizimodu grisa benetan! Bizitzeko arrazoiak eskasak badirudite ere, etorkizun beltza iragarriko dion medikuen diagnostiko batek emango dio bizitzeko indarra... paradoxak? Seguruenik. Istorio horrekin igande arratsaldeko drama kas-kar bat izango ote den galdetzen diozu zure buruari? Erantzuna EZ da! Istorio suntsitzailea, zinemagile oso on batek, zine ona eginaz kontatua!

2003, Espainia, Kanada 106 min. Coixet, Isabel.

Sarah Polley, Ammanda Plummer, Scott Speedman, Leonor Watling.

LARUNBATA • sábado




EL VERANO DE KIKUJIRO

Masao, 9 urteko haurra, aitarik gabe geratzen da eta ez du umezurtz izan nahi. Amarengana joan nahi du, baina badaki oso urruti dagoela. Bere amonaren laguna den Kikujiro gizon xehebrea da eta ez oso umezalea. Kitanoren aurreko pelikuletako (Hana-bi, Brother, ...) protagonisten (bera izan ohi da askotan berak zuzendutako pelikulen aktore nagusia) antzeko pertsonaia da Kikujiro. Bidai lagunak definituta, imajina dezakezue bien bidaia nolakoa izan daiteken!

1999, Japonia 121 min. Takeshi Kitano.

Takeshi Kitano, Yusuke Sekiguchi, Kayoko Kishimoto.




APOCALYPSE NOW REDUX

Zer esan daiteke pelikula honi buruz? Dena eta ezer ez! Ikusi ez baduzue bada garaia, ez? Eta ikusi baduzue, zertaz ari garen jakingo duzue! Zuzendaria: F.F.Coppola (*La ley del a calle*, *Cotton Club*, *El padrino (I, II eta III)*). Antzezle talde zabal bezain paregabea! (Ikus fitxa teknikoa) Musika: *totala!* (Wagner, The Doors, The Rolling Stones...). Argazkia: Vittorio Storaro (Oscarra jaso zuen filme honengatik, orain ikusgai dago bere lanari buruzko erakusketa bikaina Donostiako Kursaleko Kubo Aretoan). Sariak: nahi adina...

1979, EEBB 202 min. Coppola, F.F.

Marlon Brando, Martin Sheen, Robert Duvall, Laurence Fishburn, Harrison Ford, Dennis Hopper.




FAHRENHEIT 9/11

Michael Moore entzutetsu bilakatu zen bere *Bowling For Columbine* dokumental bikainagatik. Ondorengo bere ibilbide pertsonala parte hartze politikoengatik eragindakoa izan da. Joan den azaroko Estatu Batuetako hauteskundeetan Bushen aurkako kanpainan oposizioile nekaezin moduan aritu zen, horregatik kritika asko jaso bazituen ere.

Pelikula honetan, Irailak 11ko eraso ezagunak aitzakiatzat hartuta, Bushen aurkako beste dokumental bat egin zuen.

2004, EEBB 122 min. Moore, Michael.

Dokumentala



EL PROFESIONAL

El profesional pelikula *magia* duen pelikula horietakoa da. Istorioa arrunta da: soldatepeko hiltzaile bat (Leon-Luc Besson), polizia ustelak (Gary Oldman), tiroak, ... Horrainsua dena normala. Berezitasun puntua 12 urteko umezurtz den Mathildak (Natalie Portman) jarriko du. Eta *magia* Mathilda eta Leonen arteko harremanean sortuko da. Ez da broma, horregatik bakarrik mereziko du pelikula ikustea joateak. Ahaztu baino lehen, fitxa begiratzuz gero, bi gauzaz ohartu zaitzte: bat, ez da filme amerikarra. Bi, antzezle taldea luxuzkoa eta ahaztezina.

1994, Frantzia 110 min. Besson, Luc.

Jean Reno, Gary Oldman, Natalie Portman, Danny Aiello.



THE ITALIAN JOB

Lapurreta egin eta gero, taldeko batek saldu egiten ditu besteak eta guztia- rekin alde egiten du. Orain kontua mendeku hartzearena da. 1969an Peter Collinsonek egindako *Un trabajo en Italia* izenburu zuen pelikulan oinarritutakoa da. Umoro oso fina, suspensea nahi adina eta antzezleen lan bikaina. Adrenalina askatu nahi baduzue badakizue nora hurbildu. Ah, gogoratzen Mini Morris-ak? Ba auto horiek gustukoak bazenituen pelikula hau da zure pelikula.

2003, EEBB, Frantzia, EB 111 min. Gary Gray, F.

Charlize Theron, Donald Sutherland, Mark Wahlberg, Edward Norton.



TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON

Euskal Herriko haurrak zorte handikoak direla esan beharra dago. Ez da leku askotan izango hemen adina pailazo ikusteko aukera. Takolo, Pirrtix eta Porrotzekin batera Txirri, Mirri eta Txiribiton dira gehien ezagutzen direnak. Txirri, Mirri eta Txiribitonek ikuskizun dezente prestatu dituzte EITBrentzat. Beraz, ikus-entzunezko euskarrietan hirukote aditua dela esan daiteke. Hala den edo ez, oraingo honetan duzue hori baieztatzeko aukera.

2004, Euskal Herria 75 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Marrakzi bizidunak.




JACK, AMAZONASKO ERREGE

Jack lasai eta pozik bizi da bere basoan. Beste animaliei txantxak eginaz eta irrifarra beti soinean, bizitza lasaia darama protagonistak Conrad izeneko dirudun pertsonai maltzurra iristen den arte. Honek Jacken berri du eta berau harrapatu nahiko du bere interesetarako. Horretarako bide zuzena hartuko du: basoa erosi.

Marrakzi paregabea duen filme honek nazioarteko zinemalditan sariak irabazitakoa da.

1993, Danimarka 73 min. Flemming Quist Moller..
Marrakzi bizidunak.



ASTERIX ETA KLEOPATRA

Asterix eta Obelix, edo Obelix eta Asterix... Nork ez ditu ezagutzen historiako galiar ezagunenak? Kleopatrak egiptoarrak etxegintzan erromatarrek baino hobeagoak direla erakutsi nahi dio Julio Zesarri. Horregatik Numerobis arkitectoari hiru hileko epea emango dio gaztelu bat eraikitzeko. Honek laguntza behar eta Panoramix bere lagunari eskatuko dio. Panoramixen lagunak: Asterix eta Obelix... Erromatarrek... Jada entzuten ditugu galiarren eta erromatarren arteko lehen borroka hotsak...

2002, Belgika 82 min. Chabat, Alain.
Marrakzi bizidunak.



BOSTAK (I)

Liburuetan beren abenturak irakurtzeko aukera izan dugu eta orain irakurritakoak pelikulan ikusi ahal izango ditugu. "Bostak abenturaren aurrean" eta "Bostak eta irlako altxorra" istorioak proiektatuko dira. Lehenengo abenturan Osaba Quentinen oharrak lapurtzen saiatuko dira nazioarteko espioi batzuk. Horretarako Georges lehengusina bahituko dute. Bigarrenengoan, Georgesekin batera, altxor ezkatatu baten mapa aurkituko dute.

1996, EB 75 min. Hainbat.
J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.



AMETSEN LAPURRA

Pelikula honetan fantasiazko historia kontatzen da oso irudi dinamiko eta koloretsuen bidez. Groomo zientifiko oso gaiztoa da. Bere nahia lurra bere esku izatea da. Horretarako gomendagarriak ez diren trikimailuak erabiliko ditu. Horietako bat jendeari ametsak lapurtu eta ondorioz ilusiorik gabe uztea izango da. 7 urte dituen Nina neskato gazteak ez dio zientzia gizonari bere helburuak betetzen utziko. 2001eko Goya sarietako animaziozko filme hobereenerako lehian aritu zen.

2000, EH. 79 min. Angel Alonso.
Marrakzi bizidunak.

MARTXOA - marzo

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 3	22:00	TE DOY MIS OJOS
LARUNBATA 5	22:00	EL VERANO DE KIKUJIRO
IGANDEA 6	16:30	TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON
OSTEGUNA 10	22:00	LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS
LARUNBATA 12	22:00	APOCALYPSE NOW REDUX
IGANDEA 13	16:30	JACK, AMAZONASKO ERREGE
OSTEGUNA 17	22:00	LAS VIRGENES SUICIDAS
LARUNBATA 19	22:00	FAHRENHEIT 9/11
IGANDEA 20	16:30	ASTERIX eta KLEOPATRA
OSTEGUNA 24	22:00	LA BODA DEL MONZÓN
LARUNBATA 26	22:00	EL PROFESIONAL
IGANDEA 27	16:30	BOSTAK (I)
OSTEGUNA 31	22:00	MI VIDA SIN MI

APIRILA - abril

LARUNBATA 2	22:00	THE ITALIAN JOB
IGANDEA 3	16:30	AMETSEN LAPURRA

Gezala AUDITORIUMA

JUAN MARI BELTRAN

martxoak 4 ostirala 21:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Aspaldiko asmoa burutzeraz goaz martxo honetan: programazio berean uztartu ditugu New York-eko musikari berritzaileak eta Juan Mari Beltran, Euskal Herriko musikak izan duen maitale, ikertzaile eta sustatzaile aipagarrienetariko bat, gure artean izango ditugu.

Juan Mari gaztetatik dabil herri musikan murgildurik; 11 urterekin Etxarriko txistu taldean eta Udal Musika bandan klarinete-jole moduan aritu zen. Txalapartari moduan, 60. hamarkadan anaia duen Bixente eta Artze senideekin batera Oteizak bultzatutako euskal arte eskolan parte hartu zuen, tradizioan oinarritutako txalaparta joaz eta soinu-tresna honen aro berri bati hasera emanez.

Zenbait taldetan partaide izan dugu. Musika eta instrumentuen gaineko bilketa eta ikerketa aldetik zenbait lan publikatu ditu. Honetaz gain, Euskal Herriko Soinu tresnak diskoa eta pelikula argitaratu zituen.

Gaur egun, bere ibilbidean zehar osatutako herri-musika materialen bildumarekin (soinu-tresna bilduma, biblioteca, fonoteka eta irudi artxiboa-argazki eta pelikulak), "Herri Musikaren Txokoa", Herri Musikaren Dokumentazio Zentroa antolatzen ari da Oiartzunen.

2002an **ARDITURRI** bere azken lana argitaratu zen. Bakarka plazaratu duen bere lehen diska dugu hau. Bertan, gure herri-musika zeharkatzen duten bidezidorretatik paseo bat proposatzen digu. Doinu zahar zein berriak sormen eta bizitasun harrigarritz nahastu dituzte lan honetan, inoiz entzun ez den bezalako lan liluragarria gauzatuz.

EUSKAL HERRIKO MUSIKAK



JUAN MARI BELTRAN SEIKOTEA

J.M. Beltran Argiñena: txanbela, adarra, txalaparta, txistu-danbolina, xirula-ttunttuna, dultzaina, alboka

Iñigo Monreal Almandoz: txalaparta, adarra, djembe

Ander Barrenetxea: txalaparta, adarra, panderoa

Jasone Cámara: akordeoi

Aitor Gabilondo: ahotsa, gitarra

Miriam Atxaerandio: biolina

BLAZE

martxoak 18 ostirala 21:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Europara zuzenean dator New York eta Austin-eko musikariekin osatutako BLAZE taldea. Handik ona jiran datoz eta aparteko musikariekin osatu da taldea.

Zalantzarik gabe gure artean ezagunena Brannen Temple bateria-jolea dugu. Temple, Blaze taldearen liderra da, eta besteak beste Janet Jackson edo Roy Hargroveren bateria-jolea.



Martxoan hasiko dute Europatik bira. Estatu espainiarrean zein Euskal Herrian ere izango dira %Lezon besteak beste%. Bira honetan azken diskoa aurkeztuko dute. Beraien estiloan jazz, funk, hip hop eta elektronika topatuko dugu, guztia nahasten baitute talde honetan, ohizkoa ez den estilo berritzailea eta atsegina sortuz.

Liderraren web gunean entzun dezakezu Blaze-ren musika www.brannentemple.com

Brannen Temple: bateria;

Yoggie: baxua

Phillipe Vieux: saxo tenorea eta flauta




Andrew Langham: teklatuak

Martxoko zine zikloa: “emakume zinegileak”

Ohartu zaitezte martxoko ostegunetako pelikulen zuzendaria-
riak bost emakume direla: Iciar Bollain, Patricia Cardoso,
Sofia Coppola, Mira Nair eta Isabel Coixet.

Emakumeak kamera atzean ikuspuntu ezberdinetatik mun-
duari begira.

Zinearen bitartez bizipenak eta istorioak kontatzeko beharra
duten emakume sortzaileen lanak GUZTIONTZAT.



Erakusketa; Lezoko emakumeen eskulanak.

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

